

# Gure esku(bideen baitan) dago!

**Jon-M. Landa**  
Zigor Zuzenbideko irakaslea (EHU)

**G**iza-katea erabakitzeko eskubidearen alde ez da berebizikoa bakarrik gizartetik bertatik sortutako ekimena delako, baizik eta ikusarazten duelako bizi garenaldi berria, eta guztiz baketsua, aldarrikapen politikojakin batzuei ekiterakoan. Giza-kateak eteten du Euskal Herriko izanari buruzko eztabaida sozial eta politikoa ETAK beti proiektatzen zuen itzal maltzurra. Giza-kateak islatzen du, modu sinboliko eta argian, halako nahia eta gogo delako Euskal Herriaren erabakitzeko eskubideaz amets egiteko, funtsezko eskubidearen ariketa hutsa lez. Eta funtsezko eskubideetatik, hain zuzen ere, nahiko nuke nik hausmarketa xume bati ekin. Izan ere, urteetan, hamarkadatan, ETA erabateko jardunean zebilela, entzun baitugu dena zela posible, alegia, mota guztietako erreibindikazio politikoa posible zirela indarkeria albo batera utzita. Baina hori egia al da?

Batzuetan ezetz ematen du. Eta hori argudiatu ahal izateko, zuzenbide espainiarrean dagoen bilakaera bat aztertutako nahiko nuke: hau da, zuzenbidearen erabilera maltzurra eskubideak murrizteko, ez horiei bidea emateko; zapuzteko, ez horiek bultzatzeko; hiritarrei askatasun-esparruak kontrolatzeko; ez horiek elikatze, zabalteko, handitze. Ikus dezagun.

Giza-katea zerbaite baldin bada, adierazpen-askatasunaren eta ideologia-askatasunaren ariketa da. Giza-katearen bitartez ideia politikojakin bat, kasu honetan alderdi politikoa, bultzatu nahi izaten da, gizarte aurreko antzerki-lan erraldoiaren bitartez. Ez da mitin bat, hitzez betetako. Ez da manifestazioa, hain ohikoa izan duguna gure herrian. Bestelako zerbaite dugu. Jai girokoa. Ximplea, baina ikaragarriko prestaketa-lanaz hornitua. Sinbolikoa. Irudimenezkoa. Adin esparru desberdinak hartzen dituen. Zabala, oso esparru ideologiko

ezberdinek hor elkar topa dezaketelako. Giza-katea, gainera, oinarritik sortu da: ez dago alderdi politikoa bat atzetik hasierako ideian eta hobe lukete alderdiek ekimen hau bereganatzen ahalaginduko ez balira, hil nahi izan ezean bederen. Adierazpen-askatasunaren ariketa hau, hortaz, bestelakoa da eta egungo gizartearentzat ikaragarri indar-emailea, zeren eta, nire aburuz, gure gizarte postmodernoa nahiago ditu-eta honelako moduak, eta ez iraganeko ekitaldi sakon eta gordinak.

Adierazpen-askatasunaren ariketa hutsa, baina zein edukiz? Edukia, antza, Espainiako Konstituzioaren ez da kabitzen. Erabakitzeko eskubidea bakarrik Espainiako herriari omen du, bestelako subjektuak horren jabe ez direlarik. Eta posible al da demokrazia jator batean Konstituzioaren esanbidez aitortzen ez diren ideiak, eta Konstituzioa bera ere, auzitan jar ditzakeen ideiak defendatzea, mantentzea, bultzatu nahi izatea? Bai, horixe.

Eta horretarako gogora dezagun, ondorio hauetarako susmagarria izango ez den erakundea: hau da, Espainiako Konstituzio Auzitegia. Honen Espainiako Eredu konstituzionala demokrazia *militante* baten ereduari ez dagokiola gardentasun osoz argitu zuen aspalditik. Demokrazia militante izeneko Alemaniako Konstituzioaren ereduarekin lotuta dago, faxismoa-batez ere nazionalsozialismoa-arbuiatu eta debekatzera behartuz. Espainiako Estatuan, ordea, faxismoa, Frankorena, ez zen garaitua suertatu

**Eskuin muturreko faxismo frankozalearen apologia libre da, eta diru publikoz lagundua askotan; ordea, adierazpen-askatasunaren ariketa ez?**

eta Espainiako Konstituzioaren ez zen horregatik halako faxismoaren debekua txertatu. Hortaz, Frankoren faxismoaren apologia ez da delitu, legegileak erabakitzen ez badu-eta ez du erabaki-, eta, gainera, Justizia Administrazioaren jardunean-eta, oro har, sistema juridikoaren antolaketan-mota horretako faxismoaren aurreko jarrera oso ahula eta ustela dugu. Gogoratu besterik ez dugu egin behar Espainiako Memoria Historikorearen Legearen nondik norakoak. Labur esanda: Franko eta frankismoaren inguruko apologia jarduerak Espainiako kaleetan, monumentutan, gizarte zibilaren taldeetan, eta alderdi politikoetan ere barra-barra presente egonik, nor ausart daiteke esatera erabakitzeko eskubidea defendatu ezin dela? Eskuin muturreko faxismo frankozalearen apologia libre da, eta diru publikoz lagundua askotan; ordea, adierazpen-askatasunaren ariketa ez? Ba, zeharkako era batean Espainiako Gobernu ordezkaria den Carlos Urkijo jaunak halako zeozer defendatzen duela ematen du, Gipuzkoako Aldundiak Gure Esku Dago ekimenari emandako diru-laguntza auzitegiataran eraman duenean. Carlos Urkijok, funtsezko eskubideen aldeko interpretazioa egin beharrean, kontrakoa egiten du. Adierazpen-askatasunari eta ideologia-askatasunari hesiak jarri nahi dizkio, denon dirua erabiliz. Legea hitz handitan inbokatuta, baina edukietan demokraziari muzin egiten dio.

Eta ildo beretik doa Espainiako Fiskal Nagusia esan duenean «konstituzioaren ez dagoena ez dela existitzen». Aipatu hori, Fiskal Nagusiarena alegia, Errepublikari buruzkoa bazen ere, berdin-berdin uler liteke erabakitzeko eskubidera aplikatu nahiko lukeela. Nirekin ala nire aurka? Demokraziak, benetakoak, funtsezko eskubideen benetako edukietan oinarritzen denak, ez du horrela funtzionatzen. Legearen inbokazio formal eta formalistaren izenean, demokrazia ahuldu daiteke. Eskerrak Euskal Herriari gizarte zibila martxan jarria dela sinesten duena aurrera eramaten. Horra hor txertorik onena, demokraziak edukiz betetzeko. Gure esku dago eta gure eskubidea da.

**Z**izek (filosofo esloveniarrak) ez-ekin-tzaren teorizatzaileetako dugu, eta, gaizki ulertu ez badut, diskurtso nagusiaren hipokrisia orokortu eta hegemonikoa deseraikitze modu eraginkor eta iraultzaileena dela defendatzen du.

Azkenaldian eta denbora luzean ikusi dudana ez-ekintzarik eraginkorra (iraultzaileentzat hartzea ez naiz iristen) torero batek egin du. Iván Fandiño delako zezen hiltzaileak astearrean egindakoa. Kontua ez da joan den asteazkenean zezena, publikoaren gozamen ankerrera-ko, hiltzeari uko egin



**JIRA**  
Angel Ero

zizonek (orduak akaso hartuko nuke, bai, iraultzailetzat), baizik eta hor, palko berezi batean eserita zegoen Juan Carlos Borboikoari ez zizkiola animalien heriotzak sinbolikoki eskaini, Las Ventaseko musika bandak Xostakovi-txen *Bigarren Baltsa* -modu hunkigarrian, dena aitortu behar bada- jotzen zuen bitartean.

Batek daki zergatik eginen zuen. Baina egin da, edo ez egin da, lortu du notiziaren goiburua ia guztietan ager dezatela. Haietako batzuetan -nolabaiteko azalpena balitz bezala- euskalduna, «vasco», epitetoaz lagunduta bazetorren toreroaren izena. Nik ere gaur ez-ekintzaren bat eginen dut -inongo goiburutan aterako ez dena- euskalduna epitetoa gezurtatuz edo zalabagotuz, Zizek lagun.

## Gorpuztea

**B**adugu lagun bat beti besteok baino urrats bat aurrerago ibiltzen dena. Eta jarrera horrek badu alde onik: besteok baino lehenago ikusten ditu aukerak eta, batik bat, arriskuak, arazoak, eragozpenak. Horrenbestez, beti ditu galdera kitzikagarriak eta ohar interesgarriak. Baina jarrera horrek badu itzalik ere, lagun horrek ez baitu ia inoz ezerekin gozatzen: larunbatez astelehena du buruan, desamodioa maitemintzen duenean...

Lagun hori betiko tankeran dabil biharko giza katearekin ere, besteok baino urrats bat aurrerago.



**BIRA**  
Idurre Eskisabel

Eta ohartarazi digu ez ote den lausogea ekimena. Alegia, zer esan nahi den erabakitzeko eskubidea esaten duenean: autodeterminazioaz ari garen, independentziarako planteamendu batez, Espainiari aurre egiten, edo Frantziari eta biei, nola ebatziko dugun lurraldetasunaren auzia, zer egingo dugun erritmoekin, zer Iparralderekin. Eta erantsi du etzi astelehena izango dela, eta besta amaizutakoan, elkarki eskutik oratutako iji-aja, zer geratuko den, ez duela ikusten behar beste ehundutako sare zibilik, alderdien borroka banderizoez ez duten itoko gutzia.

Baina tira, oraingoan ez digu orbandu pozik, erabakia geurea dela aldarrikatzea, subjektu garela marraztea, gorpuztea, lorpene baita bere horretan. Oinarritzakoa.